

Nik, Kontxi Urdampilleta Santamariak, Astigarragako Udaleko Idazkaria naizenez, honako hau

ZIURTATZEN DUT

2024ko uztailaren 16an buruturiko ohiko udal osoko bilkuran, aho batez, AJAko 206 artikulua erabazpenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

Udalerriko anbulatorio berria kokatzeko HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko Astigarragako HAPoren testu bateginaren aldaketa puntuala.

Lehenengoa.- Hasierako izaeraz onartzea Astigarragako HAPoren 7. aldaketa, AIU 09 "Ergobia Ibilbidea" eta AIU 13 "Bidebitarte" eremuei buruzkoa, partzela bat ekipamendu sanitarioko sistema orokor gisa kalifikatzeko.

Udal arkitektoak zehaztu bezala, lurpeko azalera eraikitzea dagoen eremu osora zabalduko da.

Bigarrena.- Dokumentua jendaurrean jartzea 45 egunez, eta erabakia GAO-n, lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta a Udalaren web orrian argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau eta Plan Orokorra Aldatzeko dokumentua honako administrazio eta erakunde hauei bidaltzea, txostena egin dezaten:

- Añarbeko urak.
- Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikorako Ministerioaren Telekomunikazio Idazkaritza Nagusia.

Laugarrena.- Ingurumen-organoari (Eusko Jaurlaritza) ingurumen-txosten estrategikoa egiteko eskatzea, eta Plan Orokorra Aldatzeko Dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa bidaltzea.

Bosgarrena.- Ebazpen hau eta aldaketa-dokumentua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bidaltzea eta eskatzea abiarazi ditzala osasun zentro berriaren proiektua idazteko izapidea.

Eta horrela ager dadin eta behar den lekuan ondorioak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatzen dut.

Astigarragan, 2024ko uztailaren 16an



Xabier Urdangarin Lasa
Alkatea



Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria



Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA